


BERRIDI BASERRIA
A MAILA**BERRIDI BIDEA 30**

Egile eta data ezezagunak

Deskribapena

Zubietako baratzeena baino kota altuagoan dago, mendi mazelan eta ipar-ekialdera orientatuta. Oinplano ia karratua du, 400 m² inguruko azalerakoa; eta behe oinaz, lehen oinaz eta estalkipeko oinaz osatzen da. Estalkia hiru isurkiz eraikita dago. Egitura fatxada nagusiarekiko lau hormarte paralelotan banatzen da. Behe oinean hormak ditu, eta goiko oinetan zurezko pilareak. Fatxada nagusi laua nabarmentzen da. Sei bao ditu, eta zurezko bilbadura uniformeaz eta adreiluzko plementuz eraikita dago. Alboko fatxadak entokatutako harlangaitz hormazkoak dira, eta bistako silarriak ditu fatxada nagusiaren kateatuetan edo eskantzuetan. Horien artean, iparraldeko angelukoa nabarmentzen da haize babeseko horma gisa. Barruan, zurezko egitura harrizko jarlekuen gainean sei pilaretan eutsita dago, eta sekzio eta argi zabalak ditu. Ipar-mendebaldeko fatxadan, babesaren xede ez den atxikitako eranskin bat du.

Babes erregimena

- * Erregimen orokorra:
Plan Berezi honen A babes mailan sartzearekin loturikoa.
- * Berariazko erregimena:
Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Orokorrean monumentu kategoriaz sartzeko hasitako espedientearen ondoriozkoa, 2006ko urtarrilaren 31ko Ebazpenaren bidez (30. EHAA, 2006-2-14koa), eta "Santiago bidea" multzo monumentalean sartu izanaren ondoriozkoa (halakotzat deklaratu zuten urtarrilaren 10eko 2/2012 Dekretuaren bidez).
- * Eragindako ingurunea: 2006ko adierazitako ebazpenean mugatutakoa (erantsitako grafikoan jasotzen da).